

*El recurso a la racionalidad se ha convertido en tópico en este País: políticos, dirigentes sociales, personas de la cultura y hasta periodistas se valen de él a cada instante. Basta leer los periódicos.*

*Pero cuando esto ocurre, es que la racionalidad ha dejado de ser racional, porque la razón es fundamentalmente una facultad crítica; el tópico, sin embargo, es ese recurso fácil y acritico, que sirve para afirmar algo pero no para argumentar.*

*Habría que repetir aquello de "dime de qué presumes y te diré lo*

*que te falta" En fin, podría ser otro tópico. El de la racionalidad está valiendo para justificar la propia postura y descalificar la del adversario. Pero ni la justificación, ni la descalificación por medio del tópico pueden ser vías para una democracia.*

*Ha llegado la hora de desmantelar el mito de la razón que se está construyendo en nuestra sociedad. A ello va la serie de artículos que bajo el título general de "El tópico de la racionalidad" va a ir dando EGIN domingo a domingo.*

## el tópico de la racionalidad (I)

# euskadi: hau duk hau arrazoimenaren errepublika

### Euskadi: Hau duk hau arrazoimenaren Errepublika!

Azken asteotan, Euskal Herria hurbildik ezagutu nahian kanpotik inor etorri baldin bada, eta gure politikarrien deklarazioak irakurri, berehala konturatu da seguruenik, Herri hau iritxia dela arrazoimenaren paradisu terrenala erakitzaera, edo oso hurbil dabilela gutxienez.

LOAParen inguruan indar politiko guztiak lehiaka bezala dabilta nork baino nork aitor beroagoa egin Arrazoina Jainkosari. Baina aspalditxotik etorri dira klutu berrariaren tenplua jasoz.

Arrazionaltasunez beterik ikusi dituzte erakunde politikoek beren buruak, eta besteei arrazionaltasuna eskatzeko eskubide berengatu dute. Guztiei arrazoimena hitza darie ahotatik.

Erreboluzio frantsesarekin batera hil zen Arrazoina Jainkosaren erlijioa, gure politikariek —eta horiekin batera gure Herriko jakitunek— berraurkitua eta berreraikia digute, bere tenplu eta guzti.

Piramidearen itxura du euskal Errepublika arrazionalaren tenpluak. Talde politikoak hor dabilta zeinek okupatuko piramidearen mailarik gorenekoa, arrazionaltasunaren gailurra, handik beste guztiei arrazoimenaren tenpluko atek beren kasa itxeko ala irekitzeko, edota gogozkoak zaizkion beste taldeei, bakoitzaren arrazionaltasunaren arabera, Piramideko pisuak eskaintzeko eta banatzeko...

### UCD

Arrazoimenezko piramidearen erpinean uste du egon UCDk: Argi transzendentalak —"Estatuaren Arrazoioak"— behelkade osoa argitzen eta arrazionaltzen bide duen puntu hartan. Martin Villa-k aurkitua du arrazionaltasun gorenaren sekretua: LOAPA deritza. "Armonizazio" izena hartzen oraingoan arrazionalizazioak. Handik goitik gauza da Martin Villa Arzallusen mitineko hitzak "zorakeriatzat" gaitzesteko: hau da, arrazionaltasunaren ukapentzat (Ik. EGIN, urriak 15).

Hemengo Oreja I eta Oreja II eta Viana Arrazoimen argitsu haren errainu izaten saiatuko dira, arrazionaltasunik eza "desestabili-

zazioarekin" lotuz eta "terrorismo-rako"; baina Bizkaiko gobernadore da explizitoena: "Las tensiones en el País Vasco posibilitan a ETA la necesaria excusa sobre sus planteamientos irracionales para continuar la lucha armada" (EGIN, urriak 18).

Goitik behera bultzaka datoz UCDDkoen arrazionaltasun-aitorpenak, besteen arrazoingabezi salakuntzarekin batera. Izan ere, zeinek uste izan lezake arrazoimenaren jabe izatea, UCDDk ezik: "La historia está plagada de demostraciones en el sentido de que los nacionalismos siempre se han creído portadores de la razón y de la verdad". (Viana, EGIN, urriak 9).

### PSOE

Bere lekua nahi du PSOEek piramidearen goreneko mailatan. Zerbaitegatik da bera LOAParen ama!

Felipe González-entzat "ezinezkoarekin" egiten du topo Arzallusek; ezinezkoa, berriz, ulertzeinezkoarekin bat doa, eta, ondorioz, irrazionaltasunarekin; "Yo le quiero decir con toda sinceridad que me parece imposible, imposible, que un responsable político se atreva a decir una cosa de esa magnitud". Ezinezkoa da ulertzen ez dudalako; ez dut ulertzen, irrazionala delako!

Bajna gure inguruko oihartzunak argiago oihukatzen saiatuko dira. Txiki Benegas eta Damborenea dira Feliperen oihartzunak.

"Estamos construyendo un Estado y para ello hay que tener sentido de Estado", hau da, "Razón de Estado" (Txiki, EGIN, urriak 9); "Acuerdo de Estado (LOAPA)... al cual está íntimamente ligado el destino de la democracia de este país, a ser llevado a buen término y con criterios de racionalidad" (sic) (Txiki, "Deia", urriak 23).

"La gente está cansada de visceralidad... lo único que desean los ciudadanos es que se racionalice el proceso político... El PNV no tiene razón, y no la va a tener aunque saque a su gente a pasear todos los días. En política la razón se gana con obras y no dando voces" (Damborenea, EGIN, urriak 19). Areago, PSOE-PSE LOAParen

arrazionaltasuna ikusteko ere prest dago, "si las enmiendas son racionales" ("Deia", urriak 27).

### EE

Aspalditxotik irabazia du ohorezko lekua arrazionaltasunaren erreinuan. Horregatik ez du inolaz ere nahi oraingoan beste inork leku hori kentzea.

Xabier Markiegi da oraingoan Arrazoina Jainkosaren mezularia: "Cuando Euskadiko Ezkerra apostó por el Estatuto de Autonomía lo hizo con el convencimiento de que la institucionalización política que con él se lograba aportaría una herramienta para la construcción nacional de Euskadi desde una perspectiva moderna, democrática, sin exclusivismos ni chauvinismos, sin mitificaciones históricas. Antes, al contrario, basada en la voluntad política actual de todos los ciudadanos vascos, en la transparencia del marco político donde se da la confrontación racional y tolerante entre las distintas alternativas de derecha e izquierda" (Deia, urriak 24).

Baina ez Estatutuak bakarrik, LOAParen kontrako manifestaldiak ere arrazionaltasunaren zentzua du: "Autonomiak razionaldu egin behar zirela esan zuen, "ez ordea, minimoen bitartez; maximoek baizik" (Egin, urriak 27).

Eren predikua arrazionala nazionalismo burgesaren mitoen eta milenarismoaren kontra doa, besteren artean (Ik. Markiegiaren Deia-kó artikulua, lehen aipatua).

### EAJ-PNV

Baina, artikulua horretxan gainera, kidera begiratu, eta Deia-ren editoriala dator, PNVren (burgesarren?) ahotsa; eta horra hor hori ere arrazionaltasuna predikatzen: "Para salir del actual bache, y desde su responsabilidad, el nacionalismo vasco tiene que explicar racionalmente y con insistencia todos sus argumentos". Eta piramidearen erpin-erpinen dagoela uste duen Martin Villa beraren kontra jaurtitzen du irrazionaltasunaren salakuntza: "Según esta versión (irritati betena), el Gobierno central parece decirnos que no necesita tener razón, sino sencillamente el poder". Mario Fernández-ek,

ordea, arrazoioak eman zituen: "... las razones expuestas por Mario Fernández", etab. etab. Arrazoina gora eta arrazoi behera, arrazoimena eskubitik eta irrazionaltasuna ezkerretik!

Izan ere, bestearentzat "zoroa" zen Arzallus bera bestetik da: "un político que ha apostado siempre por el diálogo la racionalidad" (Deia, Editoriala, urriak 17).

Eta arrazionaltasun honen ize-nean, nonbait, ondo bereizi nahi 25eko manifestaldia, bestelako manifestaldia "zoro" eta "burugabe-koetatik": "... movilizaciones populares de un contenido y un estilo muy diferentes a las promovidas por sectores extremistas abertzales" (Deia, urriak 24).

### HB

Hon hemen, berriz, arrazoimenezko piramidearen azpikaldeko soto ilunpean bizi delako nonbait, arrazoimenezko tenpluaren argitasuna ilunpe hutsa gertatzen zaio; bere itusaldian edo. Eta, hara, orduan, HB bera, arrazoimenezko piramidearen jabeen barrutian sartu nahian, bere arrazoimenaren lintnarekin beste guztien ilunpea argituzko edo: "Es obvio, pues, que aunque Xabier Arzallus no quiere dar la razón al programa, alternativa política y práctica de Herri Batasuna, la reacción de los centralistas y colaboradores de la derecha nos están dando la razón..." (Egin, urriak 15). Bere lekua eskatzen du gutxienik HBk arrazoimenaren tenpluan, nahiz eta beste guztiak "beren" etxetik botatzen auzartu ez...

Egia esan, arrazoimenaren tenplua gure Herriarentzat faro argitsua bihurtu uste dute gure indar politiko-sozial-kultural "irrazionalistek". Gure historia eta tradizioaren desarrazoina gezuratzeko eta zuzentzeko, gure orainaldiko egoeraren kaosa ordenatzeko eta gure etorkizunaren bidea gidatzeko esperantza pizturik dago, bada! Hau dugu hau arrazoimenaren garaia!

Eta horrekin batera, talde bakoitzak aurkitua du nonbait bere burutsutasuna predikatuzko eta besteren burugabezia salatuzko hitz-bikote magikoa: irrazionaltasuna-irrazionaltasuna!

JAUSORO